

2014-UDAZKENA-AUZO BATZARRAK

Auzoa Barrio	Erdialdea
Data Fecha Ordutegia Horario Lekua Lugar	2014-12-18 19:00 – 20:25 Lamuzako Kultur Etxea (Arraño Gela)
Asistentzia Asistencia	<p>*Ordezkaritza politikoa</p> <ul style="list-style-type: none">- Jon Iñaki Urkixo - BILDU- Koldobika Zabala - BILDU- Amets Meaza - BILDU- Iñigo Martínez - BILDU- Mikel Lasa - EAJ/PNV- Maider Basterra - EAJ/PNV- Julián Larisgoitia - PSE-EE <p>*Udal teknikariak</p> <ul style="list-style-type: none">- Juan Fernando Etxebarri- Felipe Markuartu <p>*Idazkaria</p> <ul style="list-style-type: none">- Lander Martínez <p>*Dinamizatzailea</p> <ul style="list-style-type: none">- José Cerro <p>*Auzokideak</p> <ul style="list-style-type: none">-guztira total - 23-neska - 11-mutilak - 12
Gai-ordena Orden del día	<p>1_ Aurkezpena.</p> <p>2_ Tren geltokia. Geltoki inguruko urbanizazio lanak.</p> <p>3_ Aldaikorreka erreka. Errekaren kanalizazioa eta berreskuratzea eta inguruaren berreskuratzea. 1.266.000 €euro inguruko aurrekontua.</p> <p>4_ Hornidura Plaza. Irazgaiztasun eta eta oinezkoentzako aldearen hobekuntza.</p> <p>5_ Landa-bideen asfaltatua. Gune ezberdinetan inbertsioak.</p> <p>6_ Irisgarritasuna. Espaloiaren hobekuntza eta semaforo akustikoetan inbertsioa ikusmen urritasuna duten pertsonen zuzenduta.</p> <p>7_ Argiztapena. Zumalakarregi eta Pio XII kaleetan LED sistemaren ezarpena. 80.000 euroko inbertsioa.</p> <p>8_ Alberto Aceroko orubea. Erabilgarritasun publikoa jabeago pribatuak eraikitzen ez duen bitartean.</p> <p>9_ Zinemaren hobekuntza. Besaulkien eta sistema sistema digitalaren ezarpena. 90.000 euroko inbertsioa.</p> <p>10_ Lanak eskola publikoetan. Eusko Jaurlaritzak %60an eta Udalak %40an subentzionatuak.</p>

	<p>11_ Web gune berria. Aktualagoa eta urtarriletik aurrera martxan egongo da.</p> <p>12_ Enpresa Semilloaren sorrera. Negozio bat hasi nahi dutenentzat lehenengo bi urteetan kostu baxuko bulegoak. 90.000 euroko inbertsioa.</p>
<p>Edukia Contenido</p>	<p>1.- Tren geltoki inguruko lanetan, alde batetik, tren geltokirako irisgarritasuna eta orain Zubiko Kurajo kalean bukatuko den Jose Matía kalean egin zen saneamendu lanaren jarraipena aztertuko da.</p> <p>Zubiko Kurajo kalean jarduteko behetik gora abiatu beharko da. Horretarako, orain Maestro Elorza kalean bukatuko den saneamendu lanarekin jarraituko da, azkenik Zubiko Kurajoko tartean aritzeko.</p> <p>Ekintza honen helburu nagusienetariko bat Latiorraroko irisgarritasuna da. Trenbideak zeharkatzen duten tunela, gaur egun bi metro inguruko zabalerarekin, zazpi metro eta erdiko tunela izatera pasatuko da. Urtarrilaren 7tik aurrera tunela hiru hilabetetik lau hilabetera itxita egongo da.</p> <p>Urtarrilaren 7tik aurrera erdialdetik abiatuta tunelaren sarreran jardungo da. Ondoren lana bi fasetan exekutatu da. Lehenik, Latiorroko gunetik abiatuta tunelan kajoi erdia ezarriko da tren-komunikazioa gune horretan itxiz eta trenak 1 eta 2 trenbideetan funtzionatuz. Ondoren, 1 eta 2 trenbideetan jardungo da, trenak 4 eta trenbideetan ibiliz.</p> <p>2.- Aldaikorreka errekan egingo den lanean kontrataziorako plegu administratiboak prestatzen ari dira. Aldaikorreka erreka Lamuza Parkearen Plan Bereziaren lehenengo faseari dagokio. 2011 urtean Arabako Foru Aldundiaren aldetik 3 milioi euroko aurrekontu-saila zegoen lehenengo fasearen lanak gauzatzeko: Aldaikorreka erreken kanalizazioa eta berreskuratzea eta inguruaren berreskuratzea. Javier de Andresen gobernu-taldeak bertan behera utzi zuen.</p> <p>Plan berezi hau Arabako Foru Aldundiak sustatu eta bere gauzatzea ordaintzen du.</p> <p>Talde Politikoen eta Arabako entitate batzuk saiatzen ari dira Diputazioa konpromezu horiek betetzea.</p> <p>Lan hau egiteko aurrekontua 1.266.000 eurokoa da, 2012-2015ko Obra eta Zerbitzuen Plan Programaren barne.</p> <p>3.- Hornidura Plazan hezetasun arazoak konpontzeko irazgaiztasun hobekuntza bat egin da. Pintura lanak ere gauzatu dira.</p> <p>Bestetik, Hornidura Plazaren merkatariek eskatu zuten gune hori oinezkoentzat izatea leku hori merkatal gune bezala hobetzeko. Horrela egin da, gune hori nabarmen hobetuz eta han jardunez jarraituko da.</p> <p>4.- Landa-bideen berreskuratzerako programa bat gauzatu da. 2012 urtean 60.000 euro inbertitu ziren, 2013an 117.000 euro izan ziren, eta 2014an kontratazioa eginda dago eta gabonen ostean Gardea guneko asfaltatzearekin hasiko da, Hirukurutzetatik Txirrita arte, 150.000 euroko inbertsioaz.</p> <p>Bestetik, landa-bideen berreskuratzerako programaren barne, urte honetan hobekuntzak egingo dira Lusurbeilandako gunean bereziki, ondoren Katuxa-Ibarra eta Gardeagotxiko gunean jardunez. Bi gune hauetan egingo diren lanak 230.000</p>

eurotako inbertsioa dute.

5.- Espaloi batzuetan hobekuntza batzuk egin dira eta irisgarritasunean inbertituz jarraituko da. Herri Irisgarritasunaren Hobekuntza Planak dio, herrian badaudela gune asko irisgarriak ez direnak.

Bestetik, semaforoetan inbertsioa egin da, semaforo akustikoak ezarri dira ikusmen urritasuna duten pertsonentzat, hauek aginte batekin erabakiz pasatu ala ez. Sistema hau ONCErekin lankidetzan dago.

6.- Zumalakarregi eta Pio XII kaleen argiztapena. LED argiztapen sistema ezarri da, argiztapen gehiago eta gastua erdira jaitea lortuz. Helburua argiztapen eskasa eta argiztapen zaharrak zuen kontsumo altua konpontzea zen. Inbertsioa 80.000 eurotako izan da.

Zumalakarregi kaletik hasi da Merkatarien Elkartek eskatutako beharrezana zelako, baina gainontzeko kaleetatik jarraituko da.

7.- Alberto Aceroko orubea. Jabetza pribatu baten aurrean gaude eta akordio batera heldu zen espazio horretan eraikitzen ez den bitartean erabilgarritasun publikoa emateko.

50.000 eurotako aurrekontu-saila zegoen. Badago espazio horretan alde bat hesituta dagoena erabiliko ez duena jabeak horrela eskatu zuelako.

Haurrentzako jokuak ipini dira, gune osoaren ereintza falta izanez. Eserleku batzuk ere ezarriko dira eta eguraldiak hobetzen duenean gune hori lorategiz hornituko da.

8.- Zinemaren hobekuntza. Besaulkiak eta sistema digitala ezarri da. Orainarte zinemak sistema analogikoa ezarrita zuen baina filmak formatu digitalean ateratzen ari dira eskaintza oso eskas geratuz. 90.000 euroko inbertsioa egin da.

9.- Eskola publikoetan egindako lanak. Lan hauek Eusko Jaurlaritzak %60an eta Laudioko Udalak %40an subentzionatuak izan dira. Subentzio lerro hau eskola publikoentzat zuzenduta dago (Lamuzako eskola, Aretako eskola, Latorroko eskola eta EPA). Lan ezberdinak egin izan dira. Udaleko Hezkuntza Sailetik batzartu dira eskola hauen zuzendaritzekin eta hauek izan dira 2015 urtean egin beharreko lanak eskatzeko lehentasunak ezarri dituztenak.

10.- Web gune berria. 2015eko urtarriletik aurrera garai hauetarako erabilgarriagoa izango den web gune berria martxan egongo da. Web gunea telefono edo tabletei egokituta egongo da eta batez ere egingo duen enpresari eskatu zaio udaletxeko informazioa errazago jasotzeko gailuak txertatzea. Herritarren edozein zalantza jasotzeko apartatu bat sortuko da.

11.- Enpresa Semilleroa. Negozio bat hasi nahi duten pertsonentzat zuzendutako 15 metro karratu inguruko eta telefonia edo internet zerbitzuak dituzten bulegoak dira. Lehenengo bi urteetan bulego bat izango dute baldintza onetan eta koste onargarri batean, hilabetero 180 euro inguruan. Interesa dutenei udaletxera joatea animatzen zaie zehaztasun gehiagoko informazioa jasotzeko.

<p>Galderak Preguntas</p>	<p>Auzotarra.- Zubiko Kurajo kaleko lanen inguruan eskatzen du empresa lanak jasotzeko epean ahalegintzea, abenduan egon diren euriak direla eta beheko solairuko etxebizitzak urez bete direlako.</p> <p>Koldo (BILDU).- Lanen amaiera maiatzaren bukaerarako edo apirilaren hasierarako aurreikusita dago.</p> <p>Vecino.- Esaten du espaloi-hauste askotan zementu arina jartzen dela apurtutako baldosen ordezkapena egin gabe. Zementu arineko adabaki bat ipintzen da soilik.</p> <p>José Matía kaleko kale garbiketa 2, 4 eta 6 zenbakietan egiten dela esaten du eta gainontzeko kaleak egunero garbiketa egiteko eskubiderik ez ote duen galdetzen du.</p> <p>Tren geltoki inguruko lanetan udaleko teknikari bat egunero lanaren gauzatzea ikuskatuz ari den galdetzen du. Lanaren egikaritzean apurtutako kanalizazioak aldatu ez direla ohartu dela gaineratzen du.</p> <p>Eskola publiko ezberdinetan egin diren lanen inguruan, La Milagrosa eskolako eraikinaren jabetza udalarena ote den eta edozein arazo edo hobekuntza udalak arautzen duen galdetzen du.</p> <p>Web gunean iradokizun eta zalantzen apartatua funtzionatzen duen galdetzen du.</p> <p>Ibaiertzean arratoi ugari eta denetarik dagoela erreklamatzeko du. Garbiketa horretan dihardu behar duen arduradunari buruz galdetzen du. Nerbioi kaleko 3 zenbakian fatxada estaldura bat egikaritu eta landaretza egin berri den estalduraren azpitik sartzen ari dela esan du. Abandonu kalteei buruz erantzukizunak eskatzen ditu.</p> <p>Felipe Markuartu.- Orokorrean baldosak baldintza onetan ordezkatzeko direla eta ez duela ezagutzen lekuren baten zementu arina jartzen den apurtutako baldosak ordezkatzeko esaten du.</p> <p>Koldo Zabala (BILDU).- Udalak kale garbiketa kale bakoitzean maiztasun batzuk dituen empresa bati azpikontrataturik duela esaten du. Kontratuan ezarrita dago gune bakoitzetik pasatu beharreko aldiak eta nondik pasa behar diren. Edozein kearen aurrean udala enpresarekin kontaktuan jarriko da.</p> <p>Tren geltoki inguruko lana ikuskatuz bi teknikari daudela esaten du. Alde batetik, lanaren zuzendaria den Fernando Hevia, udal arkitektoa, eta bestetik Xabier Txabarri, udal aparejadorea. Azken hau eguneroko zuzendaritza eramaten ari da, egun guztietan lanaren gainean egonez. Enpresak likidazioak aurkeztu dituenean, ordain behar izango diren fakturak, egindako lan horiek erakutsi</p>

beharko ditu.

La Milagrosako eskolari dagokionez, ikastolarekin gertatzen den bezala hitzarmen bat dagoela dio. Honen bitartez, bi eskola hauei urtero diru-sarrerak batzuk dagokie eta beraiek dira mantenu lanen kudeatzaile eta erantzule. Biak hitzartutako eskolak dira.

Web gunean iradokizun eta zalantza apartatua funtzionatzen duela dio, kexa horiek teknikoei helduz. Hala ere, web gune hau askoz ere hurbilagoa izan behar da eta hori da bere eraberritzerako arrazoietakoa bat.

Ibaiaren garbiketari dagokionez, Zubiko Kurajo gunean franja txiki bat egiten ari da. Sasi gustiak kendu beharko liiratezke baina lan hori Eusko Jaurlaritzari dagokio, Uraren Euskal Agentziari zehazki. Agentzia honi proposatu zitzaion udal langileak sasiak kentzera sartzea baina uko egin zuten landaretza hori egon behar dela arrazoituz. Ekinaren ekinez sartu ahal izateko franja txiki bat egitea lortu da, konponbide onena ez bada ere.

Felipe Markuartu.- Uraren Euskal Agentziak landaretza ikutu behar ez dela ezartzen duela dio. Metro eta erdi bi metro inguruko franja bat egiteko asko kostatu da eta orain mantentzea da helburua garbiketa zerbitzuak noizean behin sar daitezen.

Koldo Zabala (BILDU).- Uraren Euskal Agentziak udalaren esku hartzea galarazten duela dio. Udalak idatziz eskatu izan dio. Esku hartzeko nahiaren arrazoietakoa bat bada gure jokaera okerrengatik pilatzen den zaborra ateratzea eta horretarako sartzea ezinbestekoa da. Uraren Euskal Agentziak esaten du landaretzak lurrari sendotasuna edo iraunkortasuna ematen diola, hori da bere argudioa.

Auzotarra.- José Matía kalean, 6 eta 8 zenbakien bitartean espaloian sareta bat fekalei lotuta euriari lotuta egon beharrean dagoela dio eta urteko sasoi batzuetan sortarazten den usaina jasanezina dela.

Koldo Zabala (BILDU).- Gune horretan hondarra dagoela eta jadanik proiektuaren aldaketa bat egon dela dio.

Felipe Markuartu.- Usaindu behar ez duela dio eta horretarako buzoi sifoniko bat eraman behar duela.

Auzotarra.- Gaur egungo aurrekontuan Zinema-Antzerkia proiektua gauzatzeko sail bat dagoela uste duela dio. Proiektu honen gaineko informazioa eskatzen du.

Proposatzen du herritarren ahotsa sartzeko aukera egotea Lan eta Zerbitzuen Foru Plan berriaren lehentasunak ezartzeko, gaur egungo plana 2015an amaitzen delako.

Koldo Zabala (BILDU).- Erantzuten du esanez Zinema-Antzerkiaren gainean

aurrekontu-sail bat dagoela eta empresa bat lanean dabilela proiektu baten garapenaren udaletxeari atxikituta dagoen espazioan eraikitzeko. Alde batetik kultur empresa bat da, gure lurraldean Bizkaian edo Gipuzkoan antzerki ugari kudeatu dituena. Kultura munduan jakitun dira. Bestetik arkitektura estudio bat da udalari erantsita dagoen espazioa aztertuko duena.

Besaulki kopurua zehaztu beharko da, proiektu honetan lanean dabilta eta emaitzak daudenean publiko egingo da edo batzar informatibo bat egingo da. Zinema-antzerkiaren inguruko lehenengo aurreikuspen batean 300 eserlekuz hitz egin zen. Momentu honetan gau egungo zinemak 160-165 eserleku ditu. Zinema berri honen eraikuntza oso alternatiba ona izango dela pentsatzen da. Momentu zehatz batzutan beteko dela eta saio bat baino gehiago emateko aukera dagoela dio baina okasio gehienetan lokal duin eta erabilgarria izango litzateke ekitaldi gehienentzat. Lehentasun bat herriko taldeak bertan aritzea izango litzateke.

Lan eta Zerbitzuen Foru Plan berriari dagokionez, formatua nolakoa den ezagutzen ez dela dio, pasa den aldi bezala bi lan aukeratzea izango ote den. Herritarrak parte hartzeko mekanismoak bilatu behar dira. Udalak pentsatzen du Zubiko Kurajoren lana amaitzea izan behar dela bat, hau da, saneamendu arazoa konpontzea. Herritarrek beste iritzi bat izatea posible dela gaineratzen du. Lan eta Zerbitzuen Foru Planaren lan guztiak neurri berean ez dira subentzionatzen.

Auzotarra.- Virgen del Carmen kaleko aparkalekutik irteteko zailtasuna baieztatzen du. Bertan ispilu bat ipintzeko aukera proposatzen du. José Arrue kalean Zumalakarregi kalera sartzeko zailtasun bera dagoela esaten du.

Koldo Zabala (BILDU).- Virgen del Carmen kaleko aparkalekuko irteera begiratzen ari da. Zumalakarregi kalera iristeko José Arrue kaletik dagoen sarbidea ere aztertu egingo da baina Udaltzaingoak dio ispiluak estimazioan engainatzeko arriskua dagoela. Gune batzuetan egokia izango da eta beste batzuetan aldiz ez.

Auzotarra.- Gaur egungo zinema baldintza oso onetan dagoela dio eta erabilera eraginkor bat eskatzen du. Bere erabilgarritasuna hainbat ekintzetara handitzea proposatzen du, errentagarritasun gehiago emanez. Leku hori zinema bat bakarrik izatea urria ikusten du, gaur egungo 165 besaulkiekin areto garrantzitsutzat hartuz.

Tipular etxeari erabilgarritasuna ematea proposatzen du. Udal Lanbide Heziketa eskolari jarraipena eman diezaiokeen lekua bezala, bigarren biblioteka bat bezala edo antzeko zerbitzu bat bezala ikusten du.

Koldo Zabala (BILDU).- Zinema programazioa handitzen ari dela eta beste erabilera batzuk eman behar zaizkiola dio. Aretoak gau egun dagoen akustika onaren abantaila du, asko hobetu dena. Eragozpen bezala espazioaren mugapena du. Formatu ertain eta txikiko antzez lanak bilatzea beharrezkoa da, antzez lan handiak besteak beste antzokiak duen altuera txikia dela eta ezin direlako etorri.

Tipular etxea jabego pribatua dela dio, herriaren historiaren parte den lekua eta eraikina.

Auzotarra.- Virgen del Carmen kaleko 9 eta 11 zenbakien auzotar-komunitatean , aparkaleku publikoaren sarbideen erabilera bateratzen eta partekatzen dutela Muriasek daukan kontzesioarekin esaten du. Orain dela egun batzuk Ertzaintzak eta Udaltzaingoak esku hartu behar izan dutela dio, eta auzotarrek beraien aparkalekuetara sartzeko arazoak izaten jarraitzen dutela. Udalak hirigintza eta koherentzia arrazoiengatik komunitateek partekatu behar zutela esan zuela dio. Urte bat baino gehiago pasata, Murias ezta udalaren aldetik erantzunik jaso ez dutela esaten du. Beste etxebizitza multzoan egiten ari den lan berriarekin, aparkalekua erabiliko duen hirugarren auzotar-komunitatea izanda, gaineratzen du bi eraikinen arteko lotura horma apurtuko dela aparkalekutik pasatu ahal izateko. Konponbide bat eskatzen du.

Alkatea.- Arazoa oso narriatuta dagoela esaten du. Alde batetik Murias enpresa dago eta bestetik Hermanos Unzaga enpresa eraikitzailea eta bitartean jabe berriak eta bestelakoak harrapatu dituzte.

Orain dela egun batzuk pasa zen gertakariari dagokionez, udaltzaingoek akta altxa zuten eta akta hori Arantza Lili, udal idazkariari igorri zaio txosten bat egin dezan, Muriaseko langileak emandako erantzunean oinarrituz ikusteko udaletik nola jardun daitekeen eta Murias enpresaren kontratu ez betetzea frogatzeko.

Udal-lizentziek beti ezartzen dute hirugarrenei kalte egin gabe baimentzen direla. Hirugarren bat kaltetua bada eta udal-lizentzia hori salatzen badu, lizentzia baliogabetu egingo da.

Aparkalekuaren horma baimenik gabe ere ezingo da suntsitu.

Auzotarra.- Zebra-bideetan edota oinezkoentzat diren lekuetan aparkatzen duten autoak bereziki molestatzen dutela esaten du. Ez zaio gustatzen kotxeen artean pasatu beharra zebra-bideak zeharkatzeko eta udaltzaingoek ezer ez egitea egoera hori ikusten dutenean.

Alkatea.- Udaltzaingoan artean izaera ezberdineko taldeak daudela dio, beti modu berean jokatzeko ez dutena. Bakoitzak bere irizpideak ezartzen ditu, badira batzuk hitz egiteko prest daudenak eta beste batzuk aldiz isunak ezartzeko joera dute aldez aurretik hitz egin gabe. Udaltzaingoekin irizpideak bateratzeko asmoz ahaleginetan ari dira.

Auzotarra.- Herriko gune batzuetan zalantzazko legalitatea duten etxetxo batzuk eraikitzen ari direla dio.

Aurreko alkatea, Jon Karla Menoyo, tren geltoki inguruko lanekin batera José Matía kaleko argi eta farolak konponduko zirela baieztatu zuela esaten du.

Zaharren egoitza zaharrari buruzko egoera galdetzen du, eraikin erabilgarritzat hartuz.

Mikel Lasa (EAJ/PNV).- Bere alderdi politikoak (EAJ/PNV) aurrekontu-emendakinak negoziatu eta aurrekontuak hobetzeko ekarpena egiten duela dio.

Koldo Zabala (BILDU).- Aurreko alkateak baieztatu zuena egingo dela erantzuten du. Aurrekontuak eskatzen ari dira gunehori konpondu nahian.

Eskaera guztietan Udalak du baimendu edo ez baimentzeko boterea. Ez dago baimenik gabeko eraikin bat egiten ari den konstantziarik. Horrelako kasu bat arrazoitzen duen salaketarik balego, arkitektoa edo teknikari bat leku horretara joan, txosten bat egin eta kasuren bat eman bada lan hori momentuan geldiarazten da. Udalak ez du onartzen adibidez nekazari-pabilioi bat egiteko baimena duenak etxebezitza bat egitea.

Zaharren egoitza zaharrear inbertsioak eta erreabilitazioak egin beharko dira. Eraikinaren barnealdeak inbertsioa garrantzitsua behar izango du. Herriaren erdialdean kokatutako eraikin historikoa da, ekintza askori zerbitzua eman diezaiokeena.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez daudenez, Batzarra amaitutzat emango da arratsaldeko zortziak eta hogeitabost minututan.